

Zuzenketarako koadernoia

2
0
1
0
/
1
1

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

DBHko 2. MAILA

IRAKURTZEKO GAITASUNA

Izen-deiturak:

Ikastetxea:

Taldea:

Herria:

Data:

Jarraibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzungo diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte, aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A Bartzelonak bezainbat.
- B 200.000, gutxi gorabehera.
- C Milioi bat.
- D Zenbait milioi.

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A Bartzelonak bezainbat.
- B 200.000, gutxi gorabehera.
- C Milioi bat.
- D Zenbait milioi.

Beste galdera batzuetan, aldiz, eskatuko dizute (E) egia edo (G) gezurra erantzutea edo erantzuna idaztea puntuak dituen gunean:

Zein da Iruñeko tokirik ezagunena?

.....



Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

AUTO ELEKTRIKOA, PREST ?

Azken asteotan asko hitz egin da komunikabideetan auto elektrikoaz; bereziki, joan den otsailean, Donostian Europako zientzia alorreko ministroak bildu zirenetik. Erakusketa egin zen, inbertsioak agindu ziren, laguntzak, neurriak, merkaturatze-epeak... Derrepente azaleratu eta azeleratu da auto elektrikoa, eta ematen du konturatu orduko nonahi izango dugula; elektrizitateak propulsiatuko duela gutako edonoren hurrengo autoa, ezinbestean. Eta ez da ideia desatsegina, egia esan. Badut trafikoaren zaratarik eta ihes-hodietako kerik gabeko hirietan barrena ibiltzeko gogoia, nahiz eta esan diguten baino zailagoa ikusten dudana auto elektrikoaren hedapena. Berezkoa dudana ezkortasunaren ondorio izango da beharbada, baina gure bizimoduari eta egin dugun ibilbideari begiratu, eta ez dakit ba nik prest egongo ote garen auto elektrikoak esan nahi duen guztia egiteko, eta onartzeko. Ez delako izango auto bat beste batekin ordeztu eta berdin segitzea.



Hasteko, auto elektrikoek ez digute emango oraingoek bezainbesteko autonomia. Ahaztu tankea bi minututan bete eta 700 kilometro ibiltzearekin. Kargatu eta 200 kilometro egin ahal izatea da orain jarritako helburua, eta 150en bat kilometro lortutakoa. Kargatzea, berriz, orduetan neurtzen da, eta ez edozein orduetan. Izan ere, sare elektrikoak badu gaitasuna hainbat milioi kotxe elektriko birkargatzeko, baina gauez bakarrik, beste zereginetarako eskaria jaisten den unetik aurrera. Horrek esan nahi du autoak gauez kargatu beharko ditugula, propio prestatutako tokietan. Eta ez da erronka makala izango horretara egokitzea, eta behar beste kargagune prestatzea, gure kale eta garajeetan zenbat eta zenbat auto dauzkagun kontuan izanda.

Egia da ehuneko bateraino azkar kargatuko diren bateriak sortuko direla, eta autonomia hobetuko dela, baina jabetu behar dugu auto elektrikoaren denbora zein distantzia eskalak ez direla (seguruenik) inoiz oraingoak izango. Inor gutxi beharko du egunero auto elektriko batek emango digun baino autonomia handiagoa, baina gure bizitza-ohiturak ez dituzte beharrek definitzen, ez eta gure gizarte-eredua «irabazitako erosotasunari eta askatasunari uko egiteak» ere. Jakina, denok ez ditugu berdin definitzen askatasuna eta erosotasuna, eta batzuek garbi esango dute trafiko zaratarik eta ihes-hodietako kerik gabeko hirietan bizitzeko aski dela autorik ez erabiltzea, eta garraio publikoa sustatzea. Aspaldi asmatu zela errezeta. Egunerokotasunak esaten digu, ordea, ez dugula asmatu edo asmatu nahi izan errezeta hori erabiltzen; autoak nahi ditugula, eta autoak nahiko ditugula. Elektrikoak nahi izango ote ditugun dago ikusteko, alegia zerk bihurtuko dituen elektrikoak gizartearen nahi bat.

Teknikoki ere auto elektrikoak badu oraindik zer gaitasuna, jakina. Elhuyar aldizkariaren apirilko zenbakian kontatu ditugu xehetasun handiagoz guztiak, eta, laburbilduz, esan daiteke ikuspegi teknologikotik baterietan dagoela erronka handiena. Seriean garatu ahal izango diren bateriak merkeak garatzeko modua asmatzea da lortu beharrekoetako bat, eta, esan bezala, autonomia handitzea, beste bat. Badira gehiago, baina horretan ari direnek dioten bezala, batez ere denbora-kontua izango da helburu horiek erdiestea. 2012rako agindu dituzte auto-konpainia guztiek modelo elektrikoak.

Beraz, laster jakingo dugu auto elektrikorik pasatzeko prest ote gauden.

Eider Carton, "Elhuyar" aldizkariako zuzendaria.
2010ean BERRIA egunkarian argitaratua

1. Errepara iezaiozu izenburuari, bertan dioena kontuan hartuz, zein izango da testu honen gaia?

- A. Auto elektrikoak.
- B. Auto elektrikoen lasterketak.
- C. Auto elektrikoen inguruan egon daitezkeen zalantzak
- D. Auto elektrikoak prest daudela azaltzea.

2. Zein da testu honen igorlea?

- A. Auto elektrikoak egiten dituen enpresa bat.
- B. Elhuyar aldizkaria.
- C. Argia Aldian goitizena duen norbait.
- D. Eider Carton.

3. Eta hartzailea? Nor uste duzu izanen dela testu honen hartzailea?

- A. Autoak gustuko dituen edozein irakurle.
- B. Elhuyar aldizkariaren irakurle euskaldunak.
- C. BERRIA egunkariaren irakurle euskaldunak.
- D. Irakurtzea gustuko duen edozein.

4. Zein izango litzateke testu honen komunikazio asmoa?

- A. Zerbait deskribatzea, gaiaren inguruko hainbat ezaugarri aipatuz.
- B. Jakintza-gai bati buruzko datuak ematea.
- C. Gertaera-segida bat azaltzea.
- D. Hartzailearen pentsaeran edo jarreran eragitea.

5. Ondorengo zein esaldik adieraziko luke egokien eta osoen testuaren igorlearen tesia edo gaiarekiko duen ikuspuntua?

- A. Igorleari ideia atsegina iruditzen zaio hurrengo autoak elektrizitatez propulsatutakoak izatea.
- B. Igorleari ideia atsegina iruditzen zaio hurrengo autoak elektrizitatez propulsatutakoak izatea, baina ez zaio hauen hedapena erraza iruditzen.
- C. Igorleari ez zaio ideia atsegina iruditzen hurrengo autoak elektrizitatez propulsatutakoak izatea.
- D. Igorleari ez zaio ideia atsegina iruditzen hurrengo autoak elektrizitatez propulsatutakoak izatea, baina hauen hedapena erraza iruditzen zaio.

6. Testuan ageri den zati batek honela dio: **“Derrepente azeleratu eta azeleratu da auto elektrikoa...”**

- A. Akats ortografikoa izan dute eta e-a bokalak nahastu dituzte.
- B. Ongi erabilia daude eta *agertu* eta *bizkortu*, hitzen antonimoak lirateke.
- C. Ongi erabilia daude eta *gorde* eta *makaldu* hitzen antonimoak lirateke.
- D. Nahasketa bat izan da, autoen *azeleragailu* hitzaren esanahiarekin erlazionaturik daude.

7. Errepara iezaiozu orain testuaren egiturari. Konturatuko zinenez, testua bost paragrafotan banaturik dago. Jar iezaiozu paragrafo bakoitzari bere izenburua ondorengo zerrendako hitzen bat aukeratuz. Kontuan izan izenburuak errepika daitezkeela.

- SARRERA
- TESIA
- ARGUDIOA
- DEFINIZIOA
- ADIBIDEA
- KONKLUSIOA

1. PARAGRAFOA: **SARRERA / TESIA**
2. PARAGRAFOA: **ARGUDIOA**.....
3. PARAGRAFOA: **ARGUDIOA**.....
4. PARAGRAFOA: **ARGUDIOA**.....
5. PARAGRAFOA: **KONKLUSIOA**

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Hiru izenburu zuzen eman ditu.
2	2	Lau izenburu zuzen eman ditu.
3	3	Bost izenburuak zuzen eman ditu.

8. Oraingoan testu-antolatzaileetan jarriko dugu arreta. Testuan badago, besteak beste, kontrako argudioak (edo kontrargudioak) egiteko antolatzaile bat. Zein da antolatzaile hori?

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Antolatzaile bat aipatzen du, ondorengoaren artean: <ul style="list-style-type: none"> • Egia da • Baina

9. Hirugarren paragrafoan honela dio: *“Egunerokotasunak esan digu, ordea, ez dugula asmatu edo asmatu nahi izan errezeta hori erabiltzen; ...”*

Zein errezetaz ari da hau esatean?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Errezetak bi osagai ditu, eta ikasleak horietako bat aipatzen du (autorik ez erabiltzea / garraio publikoa sustatzea).
2	2	Autorik ez erabiltzea eta garraio publikoa sustatzea.

10. Testu honetan igorleak defendatzen duen ikuspuntuarekin bat egin beharko bazenu, zein ikuspuntu aukeratu beharko zenuke?

- A. Auto elektrikoek ez dute deus ere balio.
- B. Auto elektrikoek onurak baino ez dizkigute ekarriko.

- C. Auto elektrikoek onurak ekarriko dizkigute baina aldaketak ere bai.
- D. Auto elektrikoak auto enpresa berri handiei interesatzen zaienean merkaturatuko dira.

11. Amaitzeko, hel iezaiozu igorleak testuaren amaieran jaurtitzen duen zehar-galderari eta, hitz gutxitan, eman zure iritzia eta justifikatu ikuspuntu hori arrazoiren bat emanaz.

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa. Ikasleak ez du identifikatu amaierako zehar-galdera (<i>auto elektrikora pasatzeko prest ote gauden</i>) eta beste edozer erantzun du.
1	1	Zehar-galderaren gainean bere iritzia eman du baina ez du arrazoitu.
2	2	Zehar-galderaren gainean bere iritzia eman du eta arrazoiren bat ere aipatu du.



Aquarius kapsula itsasontzitik jasotzen. EL SOFISTA.

'Houston, arazo bat dugu' esaldiak 40 urte bete ditu

1970eko apirilaren 13an gertatu zen NASAREN 'Apolo XIII' espazio ontzia oxigenorik gabe utzi zuen matxura

Xabier Martin. Donostia

NASAK ez du ezer berezirik egin urteurrena ospatzeko. Interneteko bere webgunean *Apolo XIII* espazio ontziko hiru astronauten argazkiak jarri, besterik ez. Baina urteurrena biribila da; 40 urte bete dira James Lowellek «Houston, arazo bat dugu» esaldia bota zuenetik. 1970eko apirilaren 13an izan zen, herenegun 40 urte. NASAK gizakia (estatubatuarrak) berriro Ilargian jartzeko erronka zuen. *Apolo XI* 1969ko uztailaren 21ean iritsi zen Ilargira. Hura zapaltzen bigarren gizakia izan nahi zuen James Lowellek. Hura zen astronautaren ametsa; «obsesioa», haren hitzetan. Alabaina, egun hartan oxigeno tanke bat lehertu zen eta berehala jakin zuen amets hori ez zela beteko. Are gehiago, espazio ontzia Lurretik 320.000 kilometrotara egonik, bizirik ateratzeak ere ameskeria zirudien.

Baina lortu zuten, nahiz eta ontziak beste oxigeno tanga bat espazioan galdu. Amaiera ona izan zuenez, NASAREN porrot handienetakoa arrakasta bilakatu zen; arazoak gainditzeko gaitasunaren istorio gisa saldu zuten misio hura. Lowellek berak jaso zuen istorioa, luze gabe best-seller bihurtu zen liburu batean. Ron Howardek *Apolo XIII* filmean jaso zuen, era berean.

James Lowellek, Fred Haisek eta John Swigertek *Odyssey* kontrol modulua utzi behar izan zuten, oxigenorik ez zegoelako, eta

Aquarius-en sartu; hasiera batean astronautak ilargian uzteko diseinatutako kapsula zen *Aquarius*.

Munduaren arreta

Matxuraren berri izan bezain laster mundu osoko komunikabideak *Apolo XIII*-ri begira jarri ziren. Hiru astronautak oso justu kabitzen ziren kapsulan, eta han ere energiarik eta oxigenorik

**Oxigeno tankea galtzean,
berehala jakin zuen Lowellek
ez zuela ametsa beteko**

**Lurretik 320.000 kilometrotara
egonik, bizirik ateratzeak ere
ameskeria zirudien.**

gabe geratzen ari ziren. Ez zekiten nola egin aurrera. NASAKO ingeniariaren irudimenari esker, arazoak modu batera edo bestera gainditzeko joan ziren, eta apirilaren 17an Lurrera itzultzeko plana jarri zuten martxan. Paraxut handi baten laguntzaz Ozeano Barean erori ziren, azkenean.

James Lowellek 82 urte ditu egun, eta, berriki esan duenez, «frustrazioan» bizi izan zen urte askoan, Ilargia ezin izan zuelako zapaldu. Gero «arazoak gainditzeko giza gaitasunaren garaipen gisa» ikusten hasi zen misio hura. «Astronautek gidatutako misioek aurrera egin beharko lukete».

2010eko apirilaren 15ean BERRIA egunkarian argitaratua

12. Testu honi buruz ziurtasun osoz esan dezaket...

- A. Kazetaritza generoari dagokion testu bat dela.
- B. Lirika generoari dagokion testu bat dela.
- C. Edozein generotatik kanpo dagoen testu bat dela.
- D. Narratiba generoari dagokion testu bat dela.

13. Errepara iezaiozu testuaren itxurari. Konturatuko zinenez, testua zutabeka antolaturik dago. Zergatik uste duzu erabiltzen direla zutabeak eta ez lerro osoak?

- A. Igorleari horrela idaztea gustatzen zaiolako.
- B. Horrela idatzita irakurtzea errazagoa delako.
- C. Egunkarietan espazioa ekonomizatu behar delako.
- D. Kazetariak beti horrela idazten dutelako.

14. Noiz bota zuen James Lowellek “Houston, arazo bat dugu” esaldia?

- A. Ilargira zihoala, *Aquarius* izeneko kapsulan, oxigeno tankea galtzean.
- B. Ilargira zihoala, *Apolo XIII* espazio ontzian, lurretik 320.000 kilometrotara.
- C. Ilargia zapaltzean, oxigeno falta susmatu zuenean.
- D. Ilargitik zetorrela, *Aquarius* izeneko kapsulan, oxigeno tankea galtzean.

15. Testuan zehar data desberdinak ageri dira. Noiz iritsi zen James Lowell ilargira?

- A. Orain dela 40 urte, oxigeno tankea galdu eta arazo larriekin.
- B. 1969ko uztailaren 21ean, *Apolo XI* espazio ontzian.
- C. 1970eko apirilaren 13an, *Apolo XIII* espazio ontzian.
- D. James Lowell ez da ilargira inoiz iritsi.

16. Datak direla eta, adibidez, “1970ko apirilaren 13an” oker idatzirik dago. Nola idatzi zuzen?

- A. Hilabeteen izenak hizki maiuskulaz idatzi behar dira: 1970ko Apirilaren 13an.
- B. Urteen ondoren marratxoa ipini behar da: 1970-eko apirilaren 13an.
- C. Hilabeteari NORK bukaera jarri behar zaio: 1970eko apirilak 13an.
- D. Data hori honela idatz daiteke: 1970eko apirilaren 13an.

17. Zergatik uste duzu bi esaldi (Oxigeno tankea... eta Lurretik 320.000 kilometrotara...) hizki desberdinez idatzi dituela igorleak?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Igorleak nabarmendu nahi duen informazioa da. Igorleak nabarmendu nahi dituen informazio multzo nagusienak dira: misioak huts egin zuela eta bizirik ateratzea.

18. Hau da hau nahaste-borrastea, zenbaitetan ez ditu kakotxak erabiltzen, bada!

‘Houston, arazo bat dugu’ esaldiak 40 urte bete ditu

- A. Hauek erabiltzen ditu testuko informazio garrantzitsuena delako.
- B. Gutxi gorabehera James Lowellek esandako hitzak direlako.
- C. NASAko arduradunek esandako hitzak direlako.
- D. James Lowellek hitzez hitz esandakoak direlako.

19. Testuak dioena kontuan izanik, ondorengo zein esaldi da guztiz zuzena?

- A. James Lowell 42 urterekin ohartu zen bere ametsa edo “obsesioa” ez zela beteko.
- B. James Lowell 40 urterekin ohartu zen bere ametsa edo “obsesioa” ez zela beteko.
- C. *Apolo XIII*ak 1969ko uztailaren 21ean lortu zuen ilargira lehen aldiz iristea.
- D. Ilargira lehen aldiz iritsi eta zehazki hamar hilabete beranduago NASA saiatu zen bigarren aldiz gizakia Ilargian jartzen.

20. Zer da testuan ageri den “Aquarius” hori?

- A. Edari isotoniko baten izena.
- B. Ilargira bidali zuten espazio ontziaren izena.
- C. Espazio ontziko kontrol moduluaren izena.
- D. Astronautak ilargian utzi behar zituen kapsularen izena.

21. Testuak dio «arazoak gainditzeko giza gaitasunaren garaipen gisa» ikusten hasi zela misio hura. Zer adierazi nahi da?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Ikasleak zera adierazten du: gizakiek arazoan aurrean ez dutela etsi behar. (Ikasleak ez du aipatzen misioaren ikuspegiaren edo misioak zuen helburuaren aldaketa).
2	2	Misioaren ikuspegia aldatu egin zen: beren lehen asmoa ez zuten lortu, baina, egoera hartatik bizirik ateratzea misio hura garaipen bat izan balitz bezala ikusi zuten. Frustrazioa garaipen bihurtu zuten. Misio frustratu bat garaipen bihurtu zen.

22. Misioa bukatzean, NASAK “porrot arrakastatsua” bezala baloratu zuen. Zergatik?

- A. Oso porrot handia izan zelako.
- B. Porrota ezkutatzeko.
- C. Astronautak bizirik lurreratu zituztelako.
- D. Espazio ontziak kilometro asko egin zituelako.

ZU GABE

Ezagutu zintudan
gau ero hartatik(an)
Nork pentsatuko luke
Nork esango zidan
zugatik lerdetan
itoko nintzela



Irribarre goxoa
baina ikasia
Begirada inozo
bezain lizuna
€ta arnasa kentzeko
gorputz landua

Zu gabe zu gabe
askoz hobe nago
zu gabe

Besteak bezala
ni ere jausi nintzen
berezia izan zela
gutziz sinetsita
itsu itsu
zure sarekadan

Esan nizkizun
hitz goxo guztiak
bidali nizkizun
mezu €ta emailak
zure harrokeria puzteko
baino ez ziren

Zu gabe zu gabe
askoz hobe nago
zu gabe

Ze esatek musika taldearen abestia

23. Irakurri berri duzun poesia hori abesti baten letra da. Irakur ezazu behar adina eta identifikatu bere gaia:

- A. Asko maite duen pertsona bat goraiatzten du.
- B. Naturako paraje bat deskribatzen du.
- C. Esperientzia pertsonalak eta sentimenduak adierazten ditu.
- D. Naturako paraje bat eta sentimenduak nahasten ditu.

24. Nori abesten ote dio kantariak, neska bati ala mutil bati?

- A. Ez dago ziur-ziur jakiterik
- B. Neska bati, ziur-ziur
- C. Mutil bati, ziur-ziur
- D. Bikote bati, ziur-ziur

25. Lehenengo paragrafoan esaten du “Nork esango zidan zugatik lerdetan itoko nintzela”. Horrela adierazi nahi du...

- A. Nork esango zidan hilko nintzela
- B. Nork esango zidan maiteminduko nintzela
- C. Nork esango zidan itsasoko ur gazian itoko nintzela
- D. Nork esango zidan ur zikinean itoko nintzela

26. Abestian ageri den “... zure harrokeria puzteko baino ez ziren” esaldiaren pareko zuzena da:

- A. Zure harrokeria puztu nahi nuen
- B. Zure harrokeria puzteko besterik ez ziren izan
- C. Zure harrokeria puztea ez zuten lortu
- D. Zure harrokeria txikia zen, eta puzteko ziren

27. Taldearen izena dela eta, nola esaten da Ze esatek batuan:

- A. Zer esan didak
- B. Zer esan duzu
- C. Zer esaten didak
- D. Zer esaten duk

28. Poesiaren barnean zein genero literario erabiltzen du?

- A. Genero narratiboa (istorio bat soilik kontatzen du).
- B. Genero lirikoa (sentimenduak soilik adierazten ditu).
- C. Poesiaren barnean ez da generorik bereizten.
- D. Genero narratiboa eta lirikoa nahasten ditu nahiz eta bietako bat nagusitu.

29. Poesiek tonu desberdinak adierazi ohi dituzte, nahiz eta batzuetan zaila izan bat soilik aukeratzea. Aukeratu ondorengo multzoetan poesia honen tonua egokien adieraziko luketen hitzak:

- A. Goraipatzailea, laudoriotsua
- B. Ironikoa, satirikoa
- C. Fantastikoa, absurdoa
- D. Hausnartzailea, erreflexiboa

30. Poesia honetan pertsona bat deskribatzen da. Pertsona horri buruz, nolako datuak ematen ditu?

- A. Ezaugarri fisikoak
- B. Izaerari buruzkoak
- C. Ezaugarri fisikoak eta izaerari buruzkoak
- D. Irribarre eta begirada bakarrik deskribatzen ditu.

31. Nola ote dago abeslaria, bene-benetan, deskribatzen duen pertsona hori gabe?

- A. Garbi adierazten du askoz hobeki dagoela.
- B. Pertsona hori gabe okerrago dago, oraindik maitemindurik baitago.
- C. Ez dago jakiterik, ez baitu garbi adierazten.
- D. Penaz eta damaturik, pertsona horrekin zuen harremana amaitu zelako.

32. Ongi dakizun bezala, poeta guztiek gustukoak dituzte errekurtsio literarioak (metaforak, konparazioak, pertsonifikazioak, hiperbole edo gehiegikeriak, sinestesiak, antitesiak, onomatopeiak, aliterazioak...). Aipa ezazu poesia honetan ageri den errekurtsio horietako bat, eta adierazi horren adibidea ere.

.....

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa. Errekurtsio literarioak ez du aipatu.
1	1	Errekurtsioen bat aipatu du, baina adibiderik gabe, edo adibidea oker dago.
2	2	Errekurtsio literario bat eta adibidea zuzen jarri ditu: <ul style="list-style-type: none"> • Hiperbolea: <i>zugatik lerdetan itoko nintzela</i> • Antitesia: <i>Irribarre goxoa baina ikasia / Begirada inozo bezain lizuna</i> • Errepikapena: <i>zu gabe zu gabe askoz hobe nago zu gabe</i> • Metafora: <i>jausi nintzenzure sarekadan</i> • Metafora: <i>guztiz sinetsita itsu itsu</i> • Sinestesia: <i>hitz goxo</i>